

# **ORDENANTZA FISKALAK 2025 EAJ-PNVren PROPOSAMENAK**

Eibarren, 2024ko irailaren 8an

## **1. PROPOSAMENA. ORDENANTZA FISKAL BERRIA ONARTZEA.**

Ondorengo ordenantza hau onartzea proposatzen da:

### **IBILGAILUAK UDAL BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEARI DAGOZKION TASAK (TAO)**

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK UDAL BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

1. art.- Foru araudia.

1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, xedatzen duenarekin bat etorritz, trakzio mekanikodun ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeagatikoko tasak arautu eta ordainarazi egiten dira.

2. art.- Egitate zergagarria

Trakzio mekanikodun ibilgailuak udalak araututako aparkatze zerbitzuari buruzko ordenantzak udal bide publikoetan zehaztutako alderdietan aparkatzen direnean egiten den udalaren herri jabetzaren aprobetxamendu berezia da tasa hauen egitate zergagarria.

Aparkatzea ibilgailua hiru minutu baino gehiago geldituta izatea da, gelditu beharra zirkulazioak berak eragin ez badu behintzat.

3. art.- Sortzapena

1.- Araubide orokorraren mendeko aparkatze baimenen eta ekonomia jardueri atxikitako ibilgailuei emandako aparkatze baimenen kasuan, tasen sortzapena izango da horretarako mugatutako udal bide publikoen eremuetan aparkatzen den unean,

Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzan ezarritakoari jarraituz.

2.- Bereizgarriren bat jaulkitzea dakarten aparkatze baimenen eskaeren kasuan, ekonomia jardueri atxikitako ibilgailuei emandako aparkatze baimenak izan ezik, dagokion tasaren sortzapena izango da aparkatze baimena ematen den unean; eta baimenaren berritze automatikoa egiten bada, sortzapena izango da urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean.

#### 4. art.- Zergaldia

1.- Araubide orokorraren mende dauden aparkatze baimenen eta aparteko araubideen mende dauden ekonomia jardueri atxikitako ibilgailuei emandako aparkatze baimenen kasuan, zergaldia bat dator egindako aparkaldiarekin.

2.- Aparteko araubidearen mende dauden baimenen kasuan, zergaldiak hauek izango dira:

a) Egoiliarrentzako aparkaleku-bereizgarria: Zergaldia urte naturala izango da. Hala ere, baimen eskaera berrien kasuan eta baimenari uko egiteko eskaeren kasuan, zergaldia gorabehera horri egokituko zaio, kuota seihilekoen arabera hainbanatuta.

b) Mugikortasun mugatuko pertsonak gidatutako ibilgailuen aparkaleku-bereizgarria: Zergaldia urte naturala izango da. Aparkaleku-bereizgarri berezia: Zergaldia urte naturala edo sei hilabete (etenik gabe) izango da.

#### 5. art.- Subjektu pasiboa

Tasen subjektu pasiboak hauek dira:

1.- Araubide orokorraren mende dauden aparkatze baimenen kasuan, horretarako mugatutako udal bide publikoetako eremuetan aparkatutako ibilgailuen gidariak.

2.- Eibarko Hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko ordenantzan araututako aparteko araubideen mende

dauden eta bereizgarria jaulkitzea dakarten baimenen kasuan, aparkaleku-bereizgarrien titular diren pertsonak.

#### 6. art.- Salbuespenak

Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dituzte tasa hauek ordaindu behar ez zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei dagozkien aprobetxamenduengatik ez herritarren segurtasunari edo nazioaren defentsari zuzenean lotuta daudenengatik.

#### 7. art.- Zerga kuota

1.- Zerga kuotak ordenantza honetako I. eranskinean daude ezarrita.

2.- Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzako III. kapituluaren araututako aparteko araubideen mende dauden eta bereizgarria jaulkitzea dakarten baimenen zerga kuotak kopuru finko bat dira.

#### 8. artikulua. Ordainbidea.

1.- Araubide orokorraren mende dauden aparkatze baimenen eta aparteko araubideen mende dauden ekonomia jardueri atxikitako ibilgailuei emandako aparkatze baimenen kasuan, udal jabari publikoaren aprobetxamendu bereziaren aurretik ordainduko da tasa, horretarako ezarritako sistemaren bidez.

2.- Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzako III. kapituluaren araututako aparteko araubideen mende dauden eta bereizgarria jaulkitzea dakarten baimenen kasuan, tasa autolikidazioz edo likidazioz ordaintzea galdatu ahalko da, eta bereizgarria ematean egingo da ordainketa.

#### 9. artikulua. Itzulketen hainbanaketak.

Bai egoiliarrek aparkatze baimena urte naturalaren bigarren seihilekoan eskaera berria aurkezten dutenean bai emandako baimenari uko egiten diotenean, bereizgarria itzultzen dutela, kuotaren zenbatekoa seihileko naturalen arabera hainbanatuko da.

Halakoetan, baldin titularrak uko egin badio emandako baimenari eta kuotaren zenbatekoa ordainduta badago, Udalak itzuli egingo die proportzioan dagokien zenbatekoa, aurreko idatz zatian ezarritakoari jarraituz, eskatzen duten subjektu pasiboari, baldin ordainketa egin dela egiaztatu bada eta bereizgarria itzuli bada.

Seihilekoari dagokion kuota urteko kuotaren % 50 izango da.

10. artikulua. Oro har aplikatzeko arauak.

Tasa horiei aplikagarri zaizkie kudeaketari, aplikazioari, likidazioari, ikuskatzeari, zerga bilketari, arau hausteei eta zehapenei buruzko arauak, honako araudi hauetan xedatuak: Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean, Gipuzkoako Dirubilketa Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian.

Amaierako xedapena

Ordenantza hau 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta, indargabetzeko edo aldatzeko erabakirik hartzen ez den bitartean, indarrean jarraituko du.

I.ERANSKINA

ZERGA KUOTAK

Egoiliarrentzako aparkaleku-bereizgarria (TAO txartela): 10,00€

TARIFA

TAO txarteldunak:

2 ordu: 0,00€

2. ordutik aurrera: 0,01€/minutuko.

TAO txartelik ez dutenak:

15 minutu: 0,00€.

15.minututik aurrera: 0,05€/minutuko.

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

ZIOA: Mugikortasun Planean detektatutako “bentosa-ibilgailuak” ekiditea, Eibarrera erosketak edo kudeaketak egitera datozenei aparkalekua aurkitzea erraztea eta, batez ere, horrek guztiak eibartarrei eragin dakizkien trabak gutxitzea, herritarrei bizimodua errazte aldera.

## **2.- PROPOSAMENAK. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzekoak.**

### **2.A Proposamena. Aldatzekoa. TERRAZAK.**

“HERRI ERABILERAKO LURZORUAK MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN, SALGAIEKIN, SALTOKIEKIN, APARATU AUTOMATIKOEKIN, ERAIKUNTZA ELEMENTUEKIN ETA ANTZEKOEKIN OKUPATZEA.” Izeneko atalean, testu hau aldatzea proposatzen da:

Honako hau dion lekuan:

“1.1 Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era arte, asteko egun guztietan

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko 84,13 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko 67,72 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko 53,35 €

1.2. Okupazioa denboraldiko, martxoaren 15etik urriaren 15era, asteburuetan eta jaiegunetan:

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko 42,07 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko 33,86 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko 26,68 €

1.3 Urte osoko okupazioa, aste guztirako:

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, urteko 143,64 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko 114,91 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko 90,29 €

1.4. Urte osoko okupazioa, asteburuetan eta jaiegunetan:

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, urteko 71,82 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko 57,46 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko 45,14 €

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

*1.5. TERRAZA FINKOAK ETA APARKATZEKO GUNEETAN.*

*Urte osoko okupazio-modulua, aste guztirako*

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, urteko 244,19 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko 194,94 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko 153,90 €

Ondorengo beste hau esan dezala:

“1.1 Okupazio arrunta: urte osorako, asteko egun guztietan.

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko 250,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko 175,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko 100,00 €

1.2. Okupazio murriztua: asteburu eta jaiegunetan soilik, edota soilik denboraldian (maiatzaren 1etik irailaren 30era).

M modulua:

- 1. kategoriako kaleetan, denboraldiko 150,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, denboraldiko 100,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, denboraldiko 50,00 €

*1.5. TERRAZA FINKOAK ETA APARKATZEKO GUNEETAN.*

*Urte osoko okupazio-modulua, aste guztirako*

*M modulua:*

- 1. kategoriako kaleetan, urteko 500,00 €
- 2. kategoriako kaleetan, urteko 350,00 €
- 3. kategoriako kaleetan, urteko 200,00 €

ZIOA: Pribatizatutako espazio publikoaren baliora gerturatzea kalitatezko espazio publikoak ahalbidetze aldera.

## **2.B proposamena. Aldatzekoa.**

4.2.1 eta 4.2.2 puntuak aldatu eta bateratzen dira. Honako hau dion lekuan:



---

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

*4.2.1. Postu irekiak:*

*Metro lineal bakoitzeko eta egun bakoitzeko:*

- 1. kategoriako kaleetan 0,95 €
- 2. kategoriako kaleetan. 0,64 €
- 3. kategoriako kaleetan. 0,32 €

*4.2.2. Txosnak, saltoki itxiak kamioi, furgoneta, atoi edo antzekoren batean; salgaiak edo zerbitzuak erakusteko, publizitatea egiteko eta/edo banatzeko autobusak, helburu komertzialekin; eremu mugatuak eta eremu publikoko beste edozein okupazio*

*m2 edo zatiki bakoitza instalazio egun bakoitzeko*

- 1. kategoriako kaleetan. 2,35 €
- 2. kategoriako kaleetan 1,59 €
- 3. kategoriako kaleetan 0,76 €

Ondorengo beste hau esan dezala:

*4.2.1. Postu irekiak, txosnak, saltoki itxiak kamioi, furgoneta, atoi edo antzekoren batean; salgaiak edo zerbitzuak erakusteko, publizitatea egiteko eta/edo banatzeko autobusak, helburu komertzialekin; eremu mugatuak eta eremu publikoko beste edozein okupazio*

*Metro karratu bakoitzeko eta egun bakoitzeko:*

- 1. kategoriako kaleetan 5,00 €
- 2. kategoriako kaleetan. 2,50 €
- 3. kategoriako kaleetan. 1,00 €

Ondorioz, 4.2.3 atala 4.2.2 atala izatera pasako da.

ZIOA: Kudeaketa sinplifikatzea eta privatizatutako espazio publikoaren baliora gerturatzea kalitatezko espazio publikoak ahalbidetze aldera.

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

**3.PROPOSAMENA: ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK  
BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN  
ORDENANTZA ALDATZEKOA.**

Ordenantzako ondorengo atal hau ezabatzea proposatzen da:

“ARRATEKO JAIK: IDI PROBEN SARRERA  
SARREREN PREZIOA (BEZ barne)  
3 idi proba 15,00€  
2 idi proba 10,00€  
Idi proba 1 5,00€  
Korredoreak 8,00€”

ZIOA: Jarduera horren antolakuntza Udalaren esku egoteari uztea.

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

#### **4.PROPOSAMENA: “ALKATETZAREN PROPOSAMENA. ZERGA ETA TASEN EGUNERAKETA” ALDATZEKOA**

Proposamenean jasotzen da zergak eta tasak KPIren gaineratik igotzea, %4 igoz, %3,6 beharrean. Proposatzen da KPIren igoera soilik aplikatzea, alegia, zergak eta tasak %3,6 soilik igotzea.

ZIOA: KPIren araberako igoera egitea.

Eibarko EAJ-PNV udal taldea

## **5. PROPOSAMENA: TRAKZIO MEKANIKODUNEKO IBILGAILUEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINA ALDATZEKOA.**

A.Turismoak gisako ibilgailuei aplikatzen zaizkien koefizienteak aldatzen dira, ondorengo hauek izango direlarik:

A. TURISMOAK	KOEF.
9 zaldi fiskaletik beherakoa	1,9
9tik 11,99rainokoa	2,0
12tik 13,99rainokoa	2,1
14tik 15,99rainokoa	2,2
16tik 19,99rainokoa	2,325
20 zaldi fiskaletik gorakoa	2,387

ZIOA: Alboko herriko zergekin fiskalki armonizatzea progresibitateari eutsiz.

## ARRAZOIAK

Herritarrentzako kostuak merketzea edo, kasuan kasu, KPIren mugararte igotzea planteatzen dira jasotako neurrietan; beharrezkoak ez diren kargak ezarri beharrean, horiek murrizten saiatzen da, eraginkortasun-printzipioa proposamen honekin lortu nahi den maximetako bat izanik. Era berean, udal tasak, zergak eta prezio publikoak arauz Ordenantza Fiskal baten bidez onartu behar dira, indarrean dagoen legeria betez. Beraz, Ordenantzaren aldaketa tresna egokia da helburu horretarako, proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioa betez. Proposamen hori garaiz eta behar bezala erregistratzen da, Udalaren webgunean argitaratzeko. Eibarko herritarrek proposamen hori aztertzeko eta, aldi berean, egokitzat jotzen dituzten proposamenak aurkezteko aukera izango dute, eta, beraz, ondorioztatzen da proposamenak gardentasun-printzipioa betetzen duela, herritarrei aukera emango baitzaie indarrean dagoen araudira eta hura onartzeko aurkezten den araudira sartzeko. Era berean, gastu arruntari eusteko ahalegina egin daiteke Udalak nahitaez eskaini behar dituen zerbitzu publikoei erantzuten ez dieten partidetan; beraz, Udalak dituen diru-sarreraren arabera eztabaidatu ahal izango da horien egokitasuna. Nolanahi ere, azaldutakoaren arabera, udal-diru-sarrerak murriztu egin daitezke aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari eragin negatiborik gabe, proposamen horrek diru-sarreretan duen eraginaren gaintik doitzen baldin badira horiekin ordaindu beharreko gastuak. Hala, proposamena egin duen taldeak uste du dokumentu honi erantsitako proposamenak zintzo betetzen dituela erregulazio onaren printzipioak, eta behar bezala justifikatuta dagoela betetze hori.